

BIBLIA: ASKATASUNAREN BILA DABILEN HERRIAREN HISTORIA KATEKESIRAKO PROPOSAMENA

KATEKISTARENTZAT FITXA

HELBURUAK

- Jabetu **Biblia hau dela**: Gaur egun ditugun galderak berak zituzten **persona batzuek eta herri batek izandako historia**.
- Ohartu **Bibliak gaur egunerako ere balio duela** eta gaurko gure kulturarekin gauza askotan antza duela.
- Bibliako kulturaz **oinarrizko zenbait datu** ikasi.
- Ikusi Biblia **gutako bakoitzari zuzendutako mezua** dela.

EDUKIAK

- **OHOLETAN**: Bi mailatako irakurketa egin behar da erakusketa honetan; horretarako daude bi eratako oholak:
 - **Sinboliko eta bizitzaren adierazgarri direnak**: Irudia da nagusi. Iradoki, adierazi, galdera sorrarazi nahi da. Biblian eta, orobat, gaur egun gizakiak bere buruari egin ohi dizkion galdera nagusiak azaltzen dira.
 - **Deskriptiboak**: Eskema xumeak eginez, Bibliako kulturaren datuak ematen dira: non dauden hiri eta herriak, zein liburu biltzen duen Bibliak, literatur generoak, Bibliako hizkuntzak, sinboloak... Eta osagarritzat, zenbait bitxitasun ere bai.
- **AZKEN TXOKOAN**: Biblia zuzenean irakurtzera, esanahia sakontzera eta berriz idaztera gonbidatzen da.

EKINTZAK

- **ERAKUSKETA IKUSI AURRETIK**: ikustera motibatuzeko eta edukiak aurrez lantzeko:
 - **Bizitza oroitaraziko duten ekintzak**: Biblian bizitzan izandako gertakariak ageri direla eta gureak bezalakoak direla ikusten laguntzeko: galdera, nahiera, krisialdi berberak...
 - **Informazioa jasotzeko ekintzak**: Bibliari buruzko jakin-mina pizteko eta Bibliak gure historian izan duen garrantzia balioztatzeko.
- **ERAKUSKETA IKUSI BITARTEAN**: aurrez egindako lana kontrastatzeko eta ikusiko dutenetik ikasteko.
- **ERAKUSKETA IKUSI ONDOREN**: ekintza didaktikoki osatzeko eta sakontzeko.

EKINTZETARAKO FITXA

ERAKUSKETA IKUSI AURRETIK IKUSTERA MOTIBATZEKO ETA EDUKIAK AURREZ LANTZEKO

BIZITZAREN ADIERAZGARRI DIREN EKINTZAK

LEHENBIZIKO EKINTZA: GALDEZKA ARI Z AidAN GALDERA

1. Egin **lau talde**.
2. **Idatz bitza** katekistak **galderak arbelean**. **Irakur bitzate isilean** haur edo gazteek. (5 minutuz)
 - a. Nola izan libre?
 - b. Zerk eragiten eta mugitzen gaitu?
 - c. Bizitzan arrakasta zerk dakar?
 - d. Non sustraitu dezaket bizitza?
 - e. Askatasunak badu mugarik ala denak balio du?
 - f. Nola gainditu porrota?
 - g. Non da Jainkoa?
 - h. Zertan dago zoriona?
3. **Aukera beza talde bakoitzak** bere egiten duen galdera bat eta **landu beza galdera hori** honela:
 - a. Zergatik aukeratu duzue galdera hori?
 - b. Adierazi, galdera horrekin eguneroko zeuen bizitzan edota gaur egungo errealitatean zerikusia duten hiru gertakari.
 - c. Hautatu galdera horrekin zerikusia duten bi notizia edota bi iragarki.
 - d. Gogoratu galdera horrekin zerikusia duen pelikularen baten eta kanturen baten titulua.
 - e. Zer erantzungo zeniokeite zuek galdera horri? Idatzi graffiti moduan.

BIGARREN EKINTZA: HORMAK MINTZATUKO BALIRA BEZALA

1. **Idatz bitza** katekistak **goiko galdera horiek tamaina handian papelografo batzuetan**. Jar bitza gelaren erdian egunkariak, aldizkariak, guraizeak eta kola-potoa. (5 minutu)
2. **Idatz bitza** haur edo gazte bakoitzak papelografoan galdera bakoitzarekin zerikusia duten eta berak nahi dituen **gogoetak, galderak, gaur egungo gertaerak**. Gaiarekin zerikusia duten **argazkiak eta notiziak** ere **ebaki** ditzake eta **itsatsi**. (15 minutuz)
3. **Aukera beza** haur edo gazte bakoitzak **papelografo bat** eta irakur dezala besteek jarri duten guztia. (10 minutuz)
4. Kartel bakoitzaren ondoan bildu den taldeak **aurkez biezaie papelografoa** gainerakoei. (15 minutuz)

HIRUGARREN EKINTZA: KONTA IEZADAZU ZEURE HISTORIA

1. **Aipa bitza** katekistak **Bibliako historia batzuk**, bakoitzari buruz azalpenak emanaz:
 - a. Babelgo dorrearena: Has 11,1-9
 - b. Sara eta Agar-en historia: Has 21,1-21
 - c. Moisesen historia: Ir 1-4
 - d. Daviden hitoria: 1 Sm 17; 2 Sm 11
 - e. Ruten historia: Rut 1-4
 - f. Jonasen historia: Jon 1-4
2. **Aukera beza** horietako bat haur edo gazte bakoitzak eta **irakur beza** isilean.
3. **Binaka elkartu**, eta konta biezaio **hitzez** batak besteari nork berak irakurri duena.
4. Egin **elkarrizketa katekesi gelan**:
 - a. Zer uste duzu esan nahi duela sakon-sakonean zure historiak? Gustatu al zaizu? Ba al zenekien? Zer jakin duzu?
 - b. Ba al du historia horrek zerikusirik gaur egun gertatzen denarekin?
 - c. Ba al du loturarik zure historiak lehenengo ekintzan azaldu zaigun galderaren batekin?

INFORMAZIOA JASOTZEKO EKINTZAK

LEHENBIZIKO EKINTZA: ADITUEN OHOLETAN

- Banatu **taldean** haur edo gazteak. Bila beza talde bakoitzak **informazioa ondoko gai horietako bati buruz** eta **horma-paperean jarri**.
- **1. taldeak.** Adieraz beza **nondik datorren judu herriaren historia** eta zein diren gertakaririk nagusienak.
- **2. taldeak.** Adieraz beza mapan non dagoen **Palestina** eta non **inguruko herrialde nagusienak**. Adieraz beza zein gatazka duten gaur egun eta nondik datorren.
- **3. taldeak.** Marraztu beza **Bibliako liburuen sailkapena**. Seinala ditzatela lehendik ezagutzen ez zituzten liburuak. Marraztu Bibliako sei sinbolo eta bilatu horien esanahia; idatzi Biblian **sinboliko diren bost zenbaki** eta zer esan nahi duten.
- **4. taldeak.** Aukera beza bizpahiru **mito**, idatzi labur eta marraztu. Zer adierazten dute mitoek eta zein ezaugarri dute?
- **5. taldeak.** Jar bitza paraleloan **literatur genero zehatz bateko testu bibliko batzuk** eta **gaur egungo beste testu** batzuk: Bibliako poemaren bat eta gaur egungo poemaren bat; jakinduriatzko idazkiren bat eta gaurko esaeraren bat; Bibliako epopeiaren bat eta gaurko epopeiaren bat; Bibliako legeren bat eta gaurko legeren bat; Bibliako erritoren bat eta gaurko erritoren bat; Bibliako mitoren bat eta gaurko mitoren bat.
- **6. taldeak.** Bila beza **Biblian gaur egun ere erabili ohi dugun 15 izen, nahiz gizaseme nahiz emakumeenak** eta konta bezate horietako baten edo biren historia.

BIGARREN EKINTZA: BIBLIAZ GALDEKETA EDO INKESTA

- Egin talde txikiak eta **eman bakoitzari honako galdeketa** hau.
- Egin biezaiete galdeketa **bost pertsona ezberdini**.
 1. Ba al dakizu gaurko zein naziotan dagoen Bibliak aipatzen duen Kanaan lurraldea?
 2. Ba al dakizu zer esan nahi duen Itun Zaharra hitzak?
 3. Ba al dakizu zer bilatzen zuten Bibliako profetek? Esango al zenizkidake horietako hiruren izenak?
 4. Zer uste duzu: Jainkoak mundua 7 egunetan egin zuela esan nahi digula Bibliak zientifikoki?
 5. Esango al zenizkidake Itun Zaharreko lau libururen izenak?
 6. Esango al zenidake Bibliarekin zerikusia duen eta herriak aipatzen duen hiru esaera?
 7. Ba al dakizu zergatik agertzen diren beti astoa eta idia, Jesusen jaiotza irudikatzean?
 8. Ba al dakizu zer esan nahi duen Biblian 7 zenbakiak?
 9. Esango al zenidake nondik datorren “Jubileu Urtea”?
 10. Ba al dakizu zergatik egiten zuten lehenengo kristauek katakunbetan arrainaren irudia?
 11. Esango al zenidake Jesusek oihukatutako hiru zoriontasun?

OHARRA: Galdeketari emandako erantzunak ez ditzatela katekesi gelan zuzendu. Eraman ditzatela erakusketara eta han zuzenduko du nork berea. Erakusketa ikusi ondoren, adieraz diezaiotela elkarri zein erantzun zuzendu duten beti, zein galderari ez dion inork erantzun edota erantzun barregarrienak zein diren.

ERAKUSKETA IKUSI BITARTEAN

AURREZ EGINDAKO LANA KONTRASTATZEKO ETA IKUSIKO DUTENETIK IKASTEKO

AURREZ EGIN BEHARREKO EKINTZAK LANDUAK BADITUZTE

1. Esan haur edo gazteei begiratzeko zertan duen antza katekesi gelan egin duten lanak eta erakusketakoak.
2. Zuzendu beraiek egin duten inkesta (Informazioa jasotzeko 2. ekintza) ohol deskriptiboetan aurkituko dutenarekin alderatuz.

IKUSTALDIA PRESTATZEKO BETARIK IZAN EZ BADUTE

1. Eman aurrez haur edo gazteei **erakusketan osatzeko** honako gai hauek:
 - a. **Aukeratu ohol handietan** deigarri gertatzen zaizun **galderaren bat**.
 - b. Bilatu zer esan nahi duten **“Eva”** eta **“Adan”** izenek.
 - c. Bilatu zein **hizkuntzetan** azaltzen diren Biblian otoitzak.
 - d. Bilatu zer esan nahi duten Biblian **lainoak, idiak eta 7 zenbakiak**.
 - e. Azaldu zer esan nahi duen **“Jubileu Urteak”**.
 - f. Aukeratu gustatu zaizun **irudiren bat eta Bibliako aipamenen bat**.
 - g. Zure ustez, zer esan nahi du **azken txokoak** eta hor zerorrek irakurri eta idatz dezazuela esateak?

ERAKUSKETA IKUSI ONDOREN

EKINTZA DIDAKTIKOKI OSATZEKO ETA SAKONTZEKO

1. **Elkarrizketa:**
 - a. Zer ikusi duzue? Zer gertatu zaizue deigarrien?
 - b. Bibliak gurekin zerikusirik baduela uste al duzue?
 - c. Zer ikasi duzue?
 - d. Ikusi duzuen horretan ba al da zuei zerbait berezia adierazi dizuen zerbait? (Galderaren bat, irudiren bat, azkenean eman dizueten aipamen biblikoa?)
2. **Hautazko ekintza:** Idatzi gutuna nahiz iradokizuna, esperientzia edota marrazkia egin eta bidali Verbo Divino argitaletxera, honek web orrian itsats dezan.
3. **Irakurri ikasgelan** Biblian azaltzen den izenen bat duten ikasleen izenen **historiak**.
4. **Adierazi orain elkarri** erakusketa ikusi aurretik ikasleek egindako **galdeketan bildutako erantzunak:** zenbat erantzun on eman duten eta zeintzuk diren gaizki emanak.